



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK


ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

- 🕒 Alertak eta jakinarazpenen kopurua
- 🗂️ Jakinarazpenen kategorizazioa
- 📍 Antzemandako arriskuen jatorria
- 🚫 Antzemandako arriskuak
- 📅 Azken urteen arteko konparazioa

2022ko URTEKO LABURPENA ➔



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2022an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **3921 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2022 urtean zehar, elikagaiei buruzko 3921 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 1107 (%28,5) **alertak** izan dira, 1398 (%35,5) **informazio-jakinazpenak** eta 1416 (%36) **mugan egin diren ukapenak**.



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%40)** eta **Asiak (%37)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Pasa den urtearekin konparatuta, European kopurua bajuagoa izan da eta Asian, berriz, altuagoa.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

2022 urtean, **hondakinek** eragin dituzte jakinarazpen gehien (%31,5), ehunekoa nabarmen igo delarik. **Kutsadura biologikoa** da jakinarazpen gehien sortu dituen bigarren taldea (%23,5), aurreko urtetik jaitsi direlarik. Beste taldeen kopuruak mantendu egin dira aurreko urtearekin konparatuz.


Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoko izan duten bilakaera:




..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Kutsadura biologikoaren kasuan, **Salmonela** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%64a** eragin baitu.


Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten joera:



Badira Salmonela espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonelak, azken hauek, **Salmonela exotikoak**, nabarmendu behar ditugularik (**79%**), aurreko urtearekin konparatuta, %10 igo da. *S.enteritidis* ere %15,5arekin, portzentai berdina jeitsi da eta *S.typhimurium* apurtxo bat jaitsi da pasa den urtearekin konparatuz. Urteko eboluzioa izan da:




Kutsadura biologikoarekin jarraituz, aurten **Listeria monocytogenes** ere bigarren postuan agertzen da, eta gaztek (batez ere bigunek) eta arrain ketuek eragin dituzte jakinarazpenen gehienak.



..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%71,5**) **Aflatoxinek** eragin dituzte. **Kakahuetea** produktu inplikatua da kasuen **% 38,5ean**.



Hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIOEN** hondakinak **% 95,5** izan dira. Klorpirifoa, European erabiltzea debekatuta dagoela, heren batean baino gehiagotan azaltzen da, bai zitrikoetan (pomeloak, laranja, limoiak eta mandarinak), bai piper eta arrozan.

Iruzurren kasuan, **DEBEKATUTAKO SUSTANTZIAK elikagai-osagarrietan** dira nabarmenenak. Etiketan **ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK** dira bigarren. Bien artean, jakinarazpenen **% 75** inguru dira.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

